

NOLA JAKIN ZURE KONTUA ARRISKUAN DAGOEN?

Erabiltzaileak bere profiletan arraroak zaizkion aldaketak detektatu behar ditu, bere kontuak konprometituak izan direla adierazten dutenak, eta honako hauek azpimarra ditzake: bere profileen edukia baimenik gabe argitaratzea, bere kontaktuei *spam* mezuak bidaltzea, kontaktuen zerrendan aldaketak egitea, bere kontuan jarduera susmagarriari buruz ohartarazten duten mezu elektronikoak, eta abar.

NOLAKOA DA SARE SOZIALETAN KONPROMETITUTAKO KONTUAK BERRESKURATZEA?

Erabiltzaileak bere kontua konprometitua izan dela detektatu ondoren, urrats batzuk egin behar ditu kontu hori berreskuratzeko:




- + Gertaeraren berri eman.
- + Kontua berreskuratu.
- + Pasahitza aldatzea.
- + Pasahitz seguruua.
- + Gailu guztiak babestea.
- + Kontaktuak ohartaraztea.
- + Banku-kontuak egiaztatzea.

SARE SOZIALETAKO KONTUEN ERASOEN HELBURUAK

Horrelako erasoak egiten dituztenen helburu nagusiak honako hauek dira:



Erasotako erabiltzailearen informazio pertsonala biltzea, hala nola banku-kontuak, nortasun-agiriak, helbide elektronikoak, telefono-zenbakiak, etab.



Kontaktuen zerrenda handitzea, erasoak haien aurka zuzendu ahal izateko; adibidez, phishing estekak bidaliz.

SARE SOZIALETAKO KONTUETARAKO JARDUNBIDE EGOKIAK



- ✓ Horrelako erasoen erabiltzaileak kontzientziatzea, sare sozialetako profiletan mugimendu susmagarriak identifikatzeko gai izan daitezen.
- ✓ Biruskontrakoak instalatuz, ekipok zibererasoen aurrean gehiago babestea.
- ✓ Sare sozialetako profiletan pasahitz seguruagoak ezartzeko gai izatea.
- ✓ Faktore bikoitzaren autentifikazioa gaitzea (2FA).